

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Azkune Zubiaurre

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatz auzoko Azpillaga baserrian jaio zen 1934an. Ama Azpillagakoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Makastikoa. Bost anai-arrebatan laugarrena da bera. Eskolan, Milagrosan ibili zen Azpeitian 12 urtera arte. 12 urterekin neskame lanetara joan zen Gernikara eta bi urtez bertan aritu zen. Geroago, Azpeitiko Luis Lizasoren harategian aritu zen lanean, eta handik baserrira bueltatu zen. Loiolako Torre-Berrosueta baserrira ezkondu zen, eta bertan bizi da orduetik.

Zintak

AZP-043

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-11-18
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Eskolako ohiturak norbait hiltzen zenean

- **Erref:** AZP-043/003
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>La Milagrosa kolegioan ikasi zuen Azpeitian. Oinatzene ere bazegoen eskola. Norbait hiltzen zenean, Oinatzeko eskolako umeak hildakoaren baserrira joaten ziren arrosarioa errezatzera. Santa Ageda egunean, baserrian norbait hil bazen urte hartan, abestu beharrean errezatu egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Ta eskolan nun ibili ziñen?
- Milagrosan, "colegio de la milagrosa", mojakin.

- Azpeitin?
 - Azpeitiyen.
 - Oiñatzen bertan ez dao... eskolaik ez zan?
 - Bai, ordun ez, baiño gerora egon zan basarri baten. Ez zan eskola bapue izengo.
 - Basarri baten?
 - Bai. Ta ni akordatzen naiz, gure aittitte hil zanien, maixue zan [...]. Ume danakin, baten bat hiltzen bazan, eskolako ume danak errosariyue errezatzea juten zien hildako etxea. Bai, bazan han basarri baten eskolia. Baiña ze eskola izengo zan ba?
 - Oseake ume danak juten zian basarri hartaa.
 - Bai, ta errosaiyua errezatzen zeбен. Bai, ta Santa Ageda egunien, urte hartan hil baldin bazan, Santa Ageda egunien errezau itten zeбен. Kantau ez, errezau.
 - Errezau.
 - Politte zan e [istoriye].
 - Ta zer juten zien maixukin beakin errezatzea?
 - Bai, bai, maixukin, ume danak hartute, basarri hortaa, hildekue zeuen basarri hortaa.

2. Eskolatik kalerako bidean erabiltzen zituzten oinetakoak

- **Erref:** AZP-043/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eskolan Milagrosetan ibili zen 6 urtetik 12 urtera arte. Oinatzetik Azpeitira ordubete inguruko bidea egiten zuten oinez. Basabidea zen, eta zapatak ez zikintzeko, egunkari-paperetan biltzen zituzten kalera iritsi arte; bidean ibiltzeko, abarkak janzten zituzten.

3. Orduko janzkera: emakumeek galtzak janzte debekatuta

- **Erref:** AZP-043/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:05:23. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Orduan janzten zuten arropa nolakoa zen azaltzen du: eskolako uniforme, igandetako arropa, negurako arropa... Neska bat kalera galtzak jantzita jaitsi zen egunean, isuna ordaindu behar izan zuen. Gaizki ikusia zegoen emakumeek galtzak janzte.

4. Eskolako bizimodua mojekin

- **Erref:** AZP-043/008
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Eskolan koloretako bandak ematen zituzten: hiru koloretakoak zeuden, eta kolore bakoitzak esanahi bat zuen. Mojek jartzen zituzten bandak. Maistrak mojak ziren, eta denak kanpokoak ziren. Lehen, hala ere, bertako moja asko zegoen. Mojekin dena erdaraz ikasi zuten, baina ez zieten zigorrik jartzen euskaraz hitz egiteagatik. Eskolan dena liburu batetik ikasten zuten. Eskolako eraikinen egitura nolakoa zen azaltzen du. Neskak bakarrik joaten ziren eskola hartara, goizez eta arratsaldez.

5. Josteko teknikak eta maistrak

- **Erref:** AZP-043/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Bordatzen ibiltzen ziren: ahozapiak eta mahai-zapiak bordatzen zituzten. Mojek erakutsi zieten, eta hari gutxi jartzen zuten josteko.

6. Gernikara neskame taberna eta gozogintzako lantegi batera

- **Erref:** AZP-043/010
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

12 urterekin Gernikara joan zen neskame denda batera. Denda hartan pastelak, jangaiak eta kafea saltzen ziren. Maria Jesus denda garbitzen, nagusien umeak zaintzen eta pastelak egiten ibiltzen zen. Pastelak nola egiten zituzten azaltzen du; gauean egiten zuten lan. Garbiketak egiteko, eskuz eta eskuila latzaz egiten zuten dena.

7. Harategiko tresnak eta lanak

- **Erref:** AZP-043/014
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:21:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Neskame lanetan ibili ostean, Azpeitiko harategi batean hasi zen lanean. Han zer lan mota egin behar izaten zituen aipatzen du. Harategiko tresnez hitz egiten du: haragia gordetzeko hozkailua zeukaten, haragia pisatzeko baskula, eta txorizoak egiteko makina. Odolkiak nola egiten zituzten azaltzen du.

8. Harategiko salmentak eta haragiaren jatorria

- **Erref:** AZP-043/015
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:21:51. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txorizoa eta odolkia saltzen ziren gehien harategian. Txuletak gutxi, jendeak merkea erosteko joera baitzuen. Ganaduaren haragia baserrietatik erosten zuen harategiko jabeak. Lehen ez zen ikuskapenik egiten harategietan.

9. Harategiko haragia nondik eta nola lortzen zuten

- **Erref:** AZP-043/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadua lehen Azpeitiko hiltzean hiltzen zuten, baina orain Iraetara eramaten da. Haragia erosteko, harategiko nagusiak tratua nola egiten zuen azaltzen du. Haragia ekarritakoan, txikitu egiten zuten: haragi mota batzuk eskuz, eta besteak makinaz. Haragia garestia zen.

Transkripzioa

- Nun hiltzen zittun ganadue?
- Matadeiye, Azpeitiyen mataderiye zan. Bai. Oin Iraeta jutun da, oin Iraeta joaten die.
- Ta ordun Azpeitia?
- Bai, Axpeitiyen zan mataderiye, Axkoitiyen'e bazan. Oin, oain iñun ez dago, oain danak Iraeta.
- Ta ze in ber izaten zan, mataderia eraman...?

- Eta gero han hiltzen zituen, eta gero pixua hartu, zenbat pixau zuen ta etxea. Baiño dirukin e? Ez zitzakon gustatzen gure nausiyai hurrungo eguneako ta lagatzie. Basarritarrai hainbeste kostata hazi txahala ta dirukin etxea esaten zun harek. Eta gaiñea gibel pusketia're bai. Oin ez da ezer ematen. [...] "muy bien", ta kito.

- Ze itten zenduen gero, zuek txikitu?

- Bai, dana txikiu, bai, makinan, bai.

- Makinan?

- Makinan, makinan, bazan makine zahar bat, haundi samar bat eta gero odolkiyak iteko ta eskuz eta makina txikitzekoa zan.

- Bai, bai, bai. Txorixuk eitekue makinan txikitzen zan, baiño olkiyek itekua ez.

- Baiña ganadue txikitzeko eskuz ingo zenduen?

- Bai, eskuz, eskuz, eskuz, bai. Mataderiyen preparaute eramaten zenun etxea.

10. Esnearen salmentaz eta banaketaz arduratzen

- **Erref:** AZP-043/018
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:25:09. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Beren baserrian beti eduki izan dute haragitarako ganadua. Maria Jesus arduratzen zen plazara saltzera joateaz, bai esnea, bai fruta, bai eta barazkiak ere. Goizero joaten zen esnea banatzera eta nola saltzen eta banatzen zuten azaltzen du.

11. Azokako salmentaren nondik norakoak

- **Erref:** AZP-043/019
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Asteartetan azokara joaten zen. Estalia zegoen lekua. Azokan, hegaztiak lurrian edukitzen zituzten hankak lotuta zeuzkatela. Prezioak saltzaile guztien artean adosten zituzten, eta prezioa jakiteko galdetu egin behar izaten zen, ez baitzuten etiketarik jartzen. Eragiketak buruz egiten zituzten.

12. Maiatzeko loreak eta elizara joateko ohitura/betebeharra

- **Erref:** AZP-043/020
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Maiatzeko loreetan meza bereziak izaten ziren. Loreak eramaten zitzaizkion orduan Ama Birjinari. Gainerakoan, elizara nahitaez joan behar izaten zuten. Goizeko seietako mezetara joaten zirenean, kuadrillan joaten ziren. Eta baserri batetik bestera bidean abiatu zirela abisatzeko, lastoa erretzen zuten. Igandero joaten ziren mezetara.

13. Elizako jardunak eta arauak

- **Erref:** AZP-043/021
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Elizan urtean behin egiten zituzten jardunak, eta horiek zer izaten ziren azaltzen du. Azpeitiko aitorleku guztiak beteta egoten ziren orduan; eta mezan komunioa jaso ahal izateko, batzuk Loiolara joaten ziren goizean goiz konfesatzera. Komunioa hartzeko, nahitaezkoa zen konfesatzea eta aurreko gaueko 12etatik aurrera ezer ez jatea. Ostia lurrera eroriz gero, apaizak bakarrik jaso zezakeen.

14. Elizako mezak eta konfesatzeko ohiturak

- **Erref:** AZP-043/022
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:35:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Oinatzen eliza egon arren, Maria Jesusen familiakoek Azpeitiko elizara joateko joera zuten. Elizan emakumeak eta gizonak batera esertzen ziren; konfesatzeko, ordea, banandu egiten zituzten. Konfesatu ostean, penitentzia ematen zien apaizak. Arrosarioa etxean errezatzen zuten.

15. Mezako hizkuntzak eta dantza lotuan egiteak zekartzan arazoak

- **Erref:** AZP-043/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:37:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Meza euskaraz izaten zen, baina latinez ere egiten zuten zati batzuetan. Aitagurea latinez esaten du. Bera kongregazio batean egon zen eta ez zuen arazorik izan; bere lehengusu bat, ordea, kongregaziotik bidali eta isuna jarri zioten dantza lotuan egiteagatik. Leku batzuetan uzten zuten dantza lotuan egiten; eta hara joateko, trikimailuak erabiltzen zituzten gazteek.</p>

16. Jolasak eta Gabonetako opariak

- **Erref:** AZP-043/025
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:37:51. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

20 urterekin hasi ziren kalera irteten. Zertara eta nola jolasten zuten kontatzen du. Jostailurik ez zuten izaten; janaria izaten zen Erregeetako oparia. Umeek Erregeei jatekoa eta edatekoa uzten zieten. Eskolan zegoela konturatu zen opariak nondik zetozen.

17. Erregeek ekarritako opariak

- **Erref:** AZP-043/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Beraiek Erregeak bakarrik ospatzen zituzten. Izeba bati behin turroi formako harri bat oparitu zioten, eta disgustua hartu zuen orduan. Ikatza ere oparitzen zen lehen. Gabon-eskea ere izaten zen, baina gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren.

Transkripzioa

- Ze izaten zan ordun, erregek, olentzero ta holakoik ez zan eongo?
- Ez, ez, ez, erregiek bakarriken. Eta honek'e badauzke kontu polittek. Esto, izeko batek hamen artin soltera, aman ahizpe honena eta holakotxe kuadrau-kuadraue, ez dakit papeliien biltute. Ene, turroia zalakuen hau eta harriya, harri pusketie. Honek'e kontatzen ditu polittak. Hure emen zan disgustue, turroie zala pentsau horrek eta geo harriye.
- Izaten zan ikatza ta?
- Iketza're bai, bai. Oin'e bai e? Iketzak eta hoiek. Hoixe.
- Zeozertako ilusioa beharko zan.
- Bai, poza, ezer ez ta poza.

- Geo abon-eskea ta...
- Bai, ibiltzen zien hauek gabon eskien ta ta. Gure anaiyek'e bai.
- Zu ibiltzen ziñan?
- Ez, ez, behin'e ez. Gu ez.
- Oiñatzen ez zan ibiltzen
- Ez, ez, gizionezkuek, mutillek, soiñukin. Esan dizut ba, ta geo baten bat urte hartan hildeku baldin bazan urte hartan, errezau. Soiñu triste-tristie jotzen zebeñ ta errezau itten zebeñ.

18. Jaiegunetako plana: kalean bueltaka eta elizako eginkizunak betetzen

- **Erref:** AZP-043/027
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:42:20. **Bukatu:** 00:43:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

20 urterekin hasi ziren erromeriatara joaten. Bestela, Azpeitira joaten ziren kalean paseatzera: Azpeitiko bezperatara joaten ziren, San Inaziori bisita egiten zioten, kalean buelta bat ematen zuten, eta etxera joaten ziren. Hori egitea betebeharra izaten zen beraientzat.

19. Mutilarekin hastean, zer-nolako planak egiten zituzten

- **Erref:** AZP-043/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:43:39. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

23 urterekin hasi zen mutilarekin, eta paseatzera joaten ziren. Ondo ikusia zegoen bikoteak elkarrekin egotea; ez, ordea, elkarri musu ematea edo eskutik heltzea. Asteburuko plana egiteko, nola komunikatzen ziren azaltzen du. Mutilek neskek baino askatasun handiagoa zuten.

20. Berrikuntzak iritsi aurretiko bizimodua baserrian

- **Erref:** AZP-043/030
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:47:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Etxean argia eta ura ez ziren beti egon Oinatzen. Argia egiteko, lehen olio

erabiltzen zuten. Goian zegoen iturri batetik lortzen zuten ura. Baina udan ez zen denentzako urik egoten, eta auzotik ekarri behar izaten zuten astoz. Nola dutxatzen ziren azaltzen du. Arropak eskuz garbitzen zituzten, eta horretarako lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

21. Bere ezkontza eta ezkondu osteko bizimodua

- **Erref:** AZP-043/031
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:47:43. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

30 urterekin ezkondu zen Loiolan, goiko kaperan. Bere ezkontzako soinekoa josi egin zioten; gonbidatu ugari izan zituzten, lagunak ere izan ziren han; eta eztei-bidaian Madrilera joan ziren. Ezkondutakoan, senarraren baserrira joan zen bizitzera, eta han senarraren senide ugari bizi ziren orduan.

22. Maiorazkoa eta haurrak etxean jaiotzea

- **Erref:** AZP-043/033
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Nora ezkondu erabakitzeko, maiorazkoa nor zen hartzen zen kontuan. Bere senarra seme zaharrena zenez, haren baserrira ezkondu zen Maria Jesus. 3 seme-alaba izan dituzte, denak etxean. Haurra izaterakoan, emaginak etortzen ziren etxera Azpeititik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com